

**GERRA AURREKO KAZETARI EUSKALDUN ETA
LEKEITIARRA: ERRAMON ERTZE GARAMENDI
(1910-1974)**

Zergatik Erramon Ertze?

Urte batzuk joan dira EKIN (1932-1936) asteroko aldizkaria eskuetaratu eta euskal letreetako izen eta izenorde ezagunen artean, bestelakoa aurkitu nuela. Izan ere, Gabirel Manterolak, Juan Bautista Eguzkitzak eta beste askok hurrenkera ederra osatzen zuten, euskara eta fede katolikoa uztartu nahian, JAUNGOIKO-ZALE bazkunaren goiburupean: «*Euntes docete*. Euzkeldu-nei euzkeraz». Horra San Mateosen Ebangeliotik ekarritako aipua (Mt. 28, 19), euskarari egokitua.

Askotarikoak ziren haien ekitaldiak, eta euren artean ez ziren falta garaiko komunikabideei eta prentsa idatziei garrantzia eta esanahi handia eman zietenak. Beste horrenbeste, esan beharrik ez dago, gizartearen barneko gorabehereri edota Eguzkitza idazle sonatuaren hitzetan esateko, *gizarte-auziari*.

EKIN asterokoa izan zuten haiek euren kezka eta arduren aldarrikatzailea eta zabaltzailea, hark hartu baitzuen, Espainiako bigarren errepublikaren aldian, lehendik zegoen JAUNGOIKO-ZALE aldizkariaren ordezkoa.

Bazen han, noizbehinka bere burua agertzen zuen idazlea, artikulua labur bezain mamitsuak idazten zituena eta EKINEN



Erramon Ertze Garamendi

Lekeitio 1910 – Bruselas 1974

Argazki bonen jatorria aurki daiteke jarraiko liburuan: Ertze Garamendi, Erramon, Suma y Resta, Euskal erbestearen kultura-La cultura del exilio vasco bilduma, Donostia: Sahurraran Argitaletxea, 2000, X. Apaolazak eta J. A. Askunzek paratua.

plazaratzerik gehienetan hitz eragileak barreiatzen zituena. Hura zen *Ertzetar Erramon*.

Egia esanda, guztiz arrotza egiten zitzaidan deitura hori hasieran, duela hogeitaz urte edo. Ez nuen, hortaz, sumatu ere egiten gerora niretzat egundoko albistea izango zena; hau da, *Ertzetar Erramon* lekeitiarra zela, abadea eta gizarte-gaietan lizentziatura zuena, Belgikako Louvainen eskuratua.

Lehen berria Rufo Atxurra lekeitiar jakintsuak eman zidan. Banebilen ni orduan ONDARROA aldizkarirako idazgaiak bilatzen, eta EKIN asterokoaren aleak Markinako karmeldarren eskuzabaltasunez etorri zitzaizkidan eskura, kontsulta ahal nitzan lasai eta zabal.

Hala egin nuen eta Ertzeren lanak aurkitu bezain laster, Rufo Atxurrak emandako informazioari esker, ekinean jarraitu nuen, hura nor zen eta zertan jardun zuen jakin arte.

Galderak, halere, erantzunak baino ugariagoak ziren. Hasteko, behar-beharrezkoa zen Ertzeren lana biribiltzea, EKINEN aleak lau urtetakoak bakarrik baitziren, 1932-1936 urteetakoak, hain zuzen ere. Hartara, batetik Bizkaiko Foru Aldundiaren Biblioteka eta bestetik Labayru Ikastegiaren Euskal Biblioteka bilaketaren helmugak izan ziren. Damurik, EKIN asterokoaren bilduma osorik ezin eskuratu, ale batzuk falta baitziren.

Eskura izan ditudanetan, alabaina, uzta polita egiteko abagunea izan dut, gizarte-auzia, langileen arteko batasunak, euskal bertsogintza edota euskararen ezaugarriak eta etorkizuna nonahi direla ageriko.

Hortaz, iturburuak izan ditudan artikuluen zerrenda lerro hauen azkenean aurkituko ditu KARMEL aldizkariaren irakurleak.

Esan dezadan halaber, lan neketsu horretan berebiziko laguntza eman didala Nagore Etxebarria euskal filologoak, berorenak baitira gerora datozen artikuluen transkripzioa eta oharrak.

2. Biografiaren xehetasunak¹

Lekeition jaio zen Erramon Ertze 1910. urtean. Etxean aita itsas kapitaina zen eta ama gazterik hil zitzaion, Ertzek sei urte doi-doi zituela. Amamak hezi eta hasi zituen hiru neba-arrebak: Rafael, Erramon eta Andoni. Harik laburrera aita ere hil zitzaion, Ertzek bere ikasketak Lekeition egiten zituen bitartean. Eskolatik Latinitate Ikastegira joan zen, bertan irakasle izan zuela, seguru asko, Eguzkitza euskaltzaina.

1923. urteaz geroztik Abade Mintegian izan zen Erramon Ertze. Artean, Eguzkitzak Lekeition eman zion prestakuntza bikainari esker, lekeitiar abadekiak aurrera egin zuen, oztoporik gabe, eliz ikasketetan. Buru argikoa zen eta berehala osatu zituen ikasketak emaitza distiratsuenekin. Hainbatez, hogeita bi urte zituen ikasketok bukatu zituenean eta abadetzeko hogeita lau behar ziren. Aldikada hori baliatzeko Belgikako Louvainera joan zen bi ikaskurtez, hango Zuzenbide Fakultatean, Zientzia Politikoa eta Sozialean lizentziatura eskuratu arte. Belgikan abadetu zen 1933. urtean, eta 1934.ean, berriro ere, Bilbon zegoen.

Ibilbide emankorra egin zuen Ertze lekeitiarrak. Egin-eginean ere, Gasteizko Abade Mintegian harreman sendoak lotu zituen Barandiaran, Pildain, Enciso, Lekuona eta beste irakasle batzuekin. Abade berrien prestakuntza-kezka zuten horiek eta goi-mailako hezkuntza, euskara eta euskal kulturarekin batera estekatzen zuten. Era berean, gizartean ziren arrangurak, kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko tenkada gogorak ez zitzaizkion arrotzak Ertzeri. Malinasko Abade Mintegia eta Mercier Kardinala ere ezagunak zitzaizkion, eta hantxe jardun zuen Ertzek ere Elizaren doktrina soziala garatzen eta hedatzen. Bide beretik etorri zen *Malinasko Kode Soziala*, Leon XIII.a aita santuaren *Rerum novarum* entziklikak jorratutako lorratzetik, hain zuzen ere.

¹ Hemengo argibideak eta berriak, gehienetan, iturri hauetatik hartu ditut: Ertze Garamendi, Erramon, *Suma y Resta* eta *La marcha del mundo*. Ikus bibliografia.

Euskal Herrira etorrira, Bizkaiko Nekazal Federazio Katolikoaren kontseilaria eta EKIN asterokoaren zuzendaria izan zen 1934. urtetik aurrera. Urte latzak, urte gogorak, Espainian nahiz mundu osoan.

Espainian, zoritxarrez, 1936. urteko uztailaren 18ak ekarri zuen, ekarri ere, guda zibila. Erramon Ertze euskal batailoiko kapelaua izan zen gerra hasieran. Gerora Agirre lehendakariaren aginduz, euskal haurren erbesteratzea antolatu behar izan zuen, Belgikan zituen ezagumenduei esker.

Belgikan euskal haurren arta eta irakaslegoa izan zen Ertzeren ardura nagusia. Munduko Bigarren gerra bitartean, Louvainan izan zen ikasle, Zientzia Historikoen lizentziatura erdietsi arte.

Euskal Herrira etortzeko ahaleginetan ibili arren, azkenean 1948. urtean Erramon Ertzek Mexikorako bidea hartu zuen.

Ertzek Mexikon sekulako ekitaldiak ondu zituen. Bateko, kazetaritza, EXCELSIOR egunkarian eta bestelakoetan; besteko, irakas-kuntza, unibertsitatean nahiz osterantzeko ikastegietan. Berba batez esateko, intelektualaren zereginak bete zituen, ezin egokia-go, Ertze lekeitiarrak Mexiko aldean, luze bai luze (1948-1965).

Haren ideia nagusiak lehenengotik zetozten, hots, katolikotasun errebindikatzaille eta aurreratzailearen aldetik, kapitalismo neoliberalaren aurka.

Bigarren Kontzilio Batikanokoak ekarri zion, haatik, abade lekeitiarrari zartako ederra. Hego eta Erdialdeko Amerikan ari ziren haize-bolada berriek, askatasunaren teologia eta bazter-tuen aitortza ekarri zuten. Horien aurrean Ertzek kontrako jarrera hartu zuen hasiera-hasieratik.

1970. urtean izan zuen lehen bihotz-sastada. 1974. urtean European zegoela bisitan, Bruselasen hil zen bihotzekoak emanda.

Hala zendu zen urte luzeetan erbestean nabarmendutako euskal kazetaria eta goi-mailako intelektualala. Orduantxe ere

itzali zen behinolako idazle eta abade lekeitiarra, gerra aurrean bere fruituak euskaraz eman zituen.

3. Erramon Ertze Garamendi, euskal kazetaria

KARMEL aldizkariaren artikulu honetara ekarri dira, aspaldiko horri jaramon eginez, Erramon Ertze idazle euskaldunaren presentzia eta testuak.

Idatzi ere, Erramon Ertzek ez zuen gerra osteko jardunetan euskaraz idatzi. Euskal kontuetan ere ez zen larregi ibili, Mexiko eta Mexikarren arazoei emanik bizi izan baitzen luzaroan. Bizitzaren azkenetan, ordea, kemena eta adorea izan zituen Burgosko prozesuaren eta Añoveros Gotzainaren kasuetan Euskal Herriaren nortasunari eusteko.

Zabal jardun zuen Ertzek bere artikulugintzan, Espainiako gerra aurrean nahiz ostean. Halako artikulua bildu dituzte artezki, lehen esan bezalaxe, Xabier Apaolaza eta Jose Angel Askunze ikertzaileek, Gorka Aulestiaren lana ere bazter utzi gabe.

Nolanahi ere, biltze-lan horrek gaztelaniaz argitaratutako testuok alderatu ditu, Ertzek lau urtez EKIN aldizkarian euskaraz argitaratu zituenak aintzat hartu gabe. Merezi du, beraz, garai batean euskal intelektuala izan zena euskal idazle gisa aitortzea eta horren lana, xumea bada ere, girotzea eta egungo belaunaldien begietan ipintzea.

Hala egin da oraingoan, uste izanik, uste osoz ere, Lekeitio herriari dagokion euskal idazlea gu guztion aurrean jartzen dela, erakusbide eta erakusleiho ederra plazaratuz. Esan dezadan, bestalde, Erramon Ertzek bereganatzen dituela Lekeitio XX. mendean bateratu ziren hainbat gertaera eta ikasbide. Eguzkitza eta Latinitate Ikastegia, gizartearen arazoak, arrantza-leen eskabideak, euskara eta nortasuna, abertzaletasuna...

Horiek dira, besteak beste, Erramon Ertzek euskaraz eman zituen gaiak. Lehendaurrez, Belgikan zela, 1933. urtean handik igorri eta argitara emandako testuek ezin argiago erakusten

dute gai horiek barrukoak zituela: herrimina, gomutak, Lekeitioko abesti herritarrak..., kanpoan dagoen Ertze lekeitiarrak aberriaren hutsunea sumatzen du.

Harrezkeroko artikuluak 1933, 1935 eta 1936. urteetakoak dira, hemeretzi guztira, eta idazgaiak berbertatik datoz: euskal kultura, itsas gizonen auziak, gizartearen gaitzak, liberalismoaren aurka jardutea... Gai horiek guztiak bat datoz, etorri ere, JAUNGOIKO-ZALE abade-aldrak abiatutako pentsamoldearekin. Ezin bazterrean utzi bestalde, EKIN aldizkariaren zuzendaritza Ertzeri egokitu zitzaiola 1934. urtetik aurrera.

4. Ertze Garamendi kazetari euskaldunaren arrangurak

Laburbilduta, hona hemen Erramon Ertzeren euskal testuen norabide nagusiak:

a) Euskara

– Baiezkoan dago Ertze euskararen etorkizunaz:

«Orain, barriz, geroago eta gehiago egiten da euskeraz. Euskeraz ez dakienak euskerea ikasi gura dabe. Dakienak, sakonago ezagutu. Euskal bazkunak sortu dira toki guztietan. Euskaltzaletasuna hor-bemen agertu da. Euskereari betikotasuna emoteko lako idaztiak egin dira. Euskaldunok geure arazo guztietan euskerea erabili geinke. Euskeraz otoi egin, euskeraz jakintzak ikasi, euskeraz abestu, euskeraz hitz egin...» (EKIN, 94. zk.).

– Euskara bizi-bizia nahi du hark; horrexegatik, hain juxtu ere, aldi hartako gehikerietan lar ibili gabe, apustu ederra egiten du euskara biziaren alde:

«Euskera hil zorian dagoala-ta negarrez gabiltza. Euskera biziari eutsi behar deusagu, ba. Bizitzako arazoetan euskera bat darabilgu; idazte orduan beste bat. Bikoizkeria hori galgarri jakula uste dot. Eta ez da bape mirari, gehiegikeriagandik iges eginda, geure umearoan ikasi, geure

etxeetan erabili eta lagun artean sendotu dogun euskera gozo, herritar, bizi eta atseginaz geure euskal gose-egarriak asetuten badoguz. Orduantxe nabaritzen dogu geugan euskal arnasea eta arimea. Mundu artipizialek iges egiten dogunean...» (EKIN, 168 zk.).

– Katolikotasuna eta euskara uztarturik ikusten ditu:

«Katolikoak gara. Eta bestelakotasunean batasuna, bat bakarra eta toki guztietakoa izaten da Eleizearen katolikotasuna: Asian, asiatarra; Euskadin, euskotarra. Bakotxari bere hizkuntzaz hitz egitea, eta euskaldunai euskeraz» (EKIN, 94. zk.).

b) Gizarte-auzia

– Ez da Ertze batere beldur gizarte-auzian Eliza katolikoak izan duen nagikeria kritikatzeko orduan:

«Katolikook lozorroaldi ederrak egin doguz. Jarraitzaile lez agertu izan doguz sarriegi geure buruak.

Zuzentzak eta arimen zaletasunak bigituta, beste bagarik, auziai erantzuna emon beharrean, beste batzuk –Eleizearen arerioak– lanean hasi arte lotan egon gara. Eta ari-mai kalte handiak egin deutsezan ondoren, lehen galdu genduana irabazten itsumustuan sarritan gabilz» (EKIN, 145. zk.).

– Hur-hurretik ezagutzen ditu erbestean diran aurrerakuntzak, langileen elkarreak eratzeko asmotan:

«Baina, begoz pozik itsas gazteok! Eurentzat be gaizkatasun eguzkiak itsasotik urten dau. Sortu da euren ardura izango daben bazkun ederra. Prantzia da beronen jaioterria, Britainako Saint Malo bere sebaskea: Itsas Gaztedi Kistarra (Jeunesse Maritime Chrétienne) daroa izentzat. Ludi guztira zabaltzera deitua da» (EKIN, 145. zk.).

– Langile gazteei zuzentzen die bere oihu berria, batasunaren alde:

«Atzerritik gauza on asko datorkiguz. Eurotatik bat, gaztedi katolikoaren eralguntza ederra. Gai honetan eredu bikaina dogu gehien be Belgikako laterria. Gaztedi katolikoa ondo eralduta dago herri horretan [...]»

Auzi garratz bat dogu orain. Gaztedi katolikoaren bazkunak gizarte-talde bakoitzak dauzean besteakin, zeintzuk hartu-emon euki behar ete ditu? Esaterako, Langile Gaztedi Kistarra langileen eralguntza osoagaz alkartuta egon behar ete da, ala eralguntza horretatik ataz? Eztabaida zoliak dira gai honetzaz. Gaur oraindik Belgikako Langile Gaztedi Kistarra, Katoliko Ekintzan eta Lngileen Alkartasunean dago batera» (EKIN, 162. zk.).

– Sutsu aldezen ditu langileen batzak eta sindikatoak:

«Ondo da arrantzaleen artean lan barriak egitea; eta behar-beharrekoa dala deritxat. Baina barrizte eta aldakuntza guztiak euren izate berezia aintzat hartu behar dabe. Eta nire eritziz, itsas anaidiak dira arrantzaleen ardurea hartu behar dabenak. Anaidien bidez egin behar da euren goratze lanosoa: anaidiak zuzendu behar dabe arrantza lehen ekonomi eta gizarte-bizitza; anaidiak landu behar dabez euren adimen eta bihotzak eta hazi-ikaskuntza egokia emon; anaidi barruan ebatzi behar dira arrantzu-bizitzan sortu leitekezan eztabaida eta auziak...» (EKIN, 173. zk.).

Horra, bada, esanaren argigarri, Ertzeren pentsamenduaren printza batzuk, euskaraz emanak eta horren geroko ekinaren erakusleak.

Hor dira ageriko, modu berean, gerra osteko Mexikon Ertzek garaturik eta zabaldurik eman zituen irakasbide eragingarrien oinarriak eta eustazpiak.

Horrexegatik eskaini zion Lekeitioko herriak omenaldi beroa, 1999. urtean, Erramon Ertze idazleari. Omenaldia ez ezik, plaza baten izena ere ezarri zion herrian bertan, leku horrek lekeitiarren gomutan iraunarazi zezan haren biografia.

Orain, KARMEK aldizkariak hartu du errelebua eta omenaldi-ko sustatzailearen gonbitari men eginez, orrialdeotara datoz Erramon Ertzeren luma lekeitiarrak plazaratu zituen euskaraz-ko artikulua, horiek begi-bistan uzten baitute XX. mendeko lehen herenaren euskarak eta euskal kulturak kabi ederra izan zutela lekeitiarren artean.

Eskubide osoa dagokio, beraz, Erramon Ertzeri aurrerantzean euskal kazetarien artean ikusteko bere burua eta izena.

5. Euskarazko artikuluen iturriak

EKIN aldizkariaren azterketa liburutegi hauetako arduradunen eskuzabaltasunari esker egin da. Bihoaz, hortaz, nire eskerrik beroenak eurentzat.

Karmeldarren Ordenaren Biblioteka (Markina)

- 1932. urteko zenbakiak (I urtea): 1-48.
- 1933. urteko zenbakiak (II urtea): 49-100.

Euskal Biblioteka (Labayru Ikastegia)

- 1934. urteko zenbakiak (III urtea): 101-141.
- 1936. urteko zenbakiak (V urtea): 193, 195 eta 208.

Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia

- 1934. urteko zenbakiak (III urtea): 110.
- 1935. urteko zenbakiak (IV urtea): 142-181.
- 1936. urteko zenbakiak (V urtea): 183-207.

Aurkitu ezin izan ditugun zenbakiak: 149, 150, 177, 182, 194 eta 197a.

6. Bibliografia

AULESTIA, Gorka: «Ramón Ertze Garamendi (1911-1974)», *Euskal Erbestearen Kultura. Hirurogei urte geroago* (Egile Askorena), II liburukia, Donostia: Saturraran Argitaletxea, 2000, 75-90 or., X. Apaolazak, J. A. Askunzek eta I. Momoiotik paratua.

EGUZKITZA, Juan Bautista: *Gizarte-Auzia, Klasikoak* bilduma, 24. zenbakia, Donostia: Euskal Editoreen Elkartea-Erein, 1990, A. Urrutiak paratua.

- ERTZE GARAMENDI, Erramon: *Suma y Resta, Euskal erbestearen kultura-La cultura del exilio vasco* bilduma, Donostia: Saturrarán Argitaletxea, 2000, X. Apaolazak eta J. A. Askunzek paratua.
- : *La marcha del mundo, Euskal erbestearen kultura-La cultura del exilio vasco* bilduma, Donostia: Saturrarán Argitaletxea, 2001, X. Apaolazak eta J. A. Askunzek paratua.
- MERCIER, Désiré (Malinasko Kardinala): *Kristauak jakin bear duana*, Tolosa: Lopez-Mendizabal Argitaletxea, 1933, M. Lekuonak itzulia eta paratua.
- THALAMAS LABANDIBAR, Juan: «La vida marítima. La pesca en el pasado», *Aspectos de la vida profesional vasca, Zabalkundea* bilduma, 13. zenbakia, Zarautz: Itxaropena Argitaletxea, 1935, 85-97 or.
- UNION INTERNACIONAL DE ESTUDIOS SOCIALES: *Códigos de Malinas. Social, Familiar, De moral internacional*, Santander: Editorial Sal Terrae, 1954, I. González Moralek itzulia eta paratua.
- URRUTIA, Andres: *Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939), Bidegileak* bilduma, 24. karpeta, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001, Mikel Atxagak zuzendua.

Andres Urrutia

7. ARTIKULUEN TESTUAK²

I

EKIN, 1933ko hazilaren³ 18an (94. enbakia)

URRUNDIK

Ez da hilgo!

Euskerea hiltan dagoala-ta, bertan behera itxi behar dogula esan deust norbaitek.

Hiltan dagoala euskerea?

² Artikuluok grafia gaurkoturik aurkeztu ditugu, irakurleen mesedegarri.

³ *Hazil*: zemendi, azaro.

Kantauri itsasertzean izango zintzan inoiz, irakurle. Ura gora eta behera dabil; beherazko aldiaren atzetik gorazko aldia dator. Beherazkoaldiak heriotzea daroa, makaltasuna. Gorazkoaldiak, ordea, bizitasuna, indarra.

Hauxe da herrien bizia. Hauxe izan da euskerearena be.

Antxina orain baino toki gehiagotan euskeraz egiten zan. Egia da. Baina guztiok dakigun lez, euskerea gatzak jota egotan, heriotzako bidetik ebilen. Beherazko bidea zan, neguko arratsalde iluna.

Orain, barriz, geroago eta gehiago egiten da euskeraz. Euskeraz ez dakienak euskerea ikasi gura dabe. Dakienak, sakonago ezagutu. Euskal bazkunak sortu dira toki guztietan. Euskaltzaletasuna hor-hemen agertu da. Euskereari betikotasuna emoteko lako idaztiak egin dira. Euskaldunok geure arazo guztietan euskerea erabili geinke. Euskeraz otoi egin, euskeraz jakintzak ikasi, euskeraz abestu, euskeraz hitz egin...

Baso ezkutueta jaurti eben euskerea. Baina, *negarrez igarozan atsoak* gure bihotzak bereganatu dauz.

Eta garrantzitsuena dana, gaur badakigu non dagoan geure herriaren gatxen sustraia. Gizaldi osoak igaro doguz leihotik begira. Etxe-barrura sartzeko ordua da. Erleak lorean lez, hortxe aurkituko dogu geure gozamina.

Hilten dagoala euskerea?

Noiz izan ete dau gaur daukan lako indarririk?

Euskerea aurrera doa. Goi-goraino heldu behar da.

Beste hizkuntzak baizen ederra dalako.

Geure-geurea dalako. Herri guztiak, bakoitxak bere bidetik, euren zoruna⁴ jadetsi behar dabe; geuk be bai, geure bestelakotasun zindoa sendatuaz.

⁴ *Zorun*: zorion.

Kistarrak⁵ gara. Eta sinismenari eta ekandu onai eutsiteko euskereak asko laguntzen dau.

Katolikoak gara. Eta bestelakotasunean batasuna, bat bakarra eta toki guztietakoa izaten da Eleizearen katolikotasuna: Asian, asiatarra; Euskadin, euskotarra. Bakotxari bere hizkuntzaz hitz egitea, eta euskaldunai euskeraz.

Euskerearen bizia geure eskuetan daukagu. Geuk nahi badogu, ez da hilgo.

Eta *sasigarle jakitun* batzuk dinoskuen lez, euskerea nahitahiez hil behar bada, geugaz batera hilgo da. Lehenago ez!

Dagigun lana, anaiak!

Euskereak burua jasotzea Jaungoikoak nahi dau eta.

Ertzetar Erramon

Leuven, 1933-XI-12

II

EKIN, 1933ko hazilaren 25ean (95. enbakia)

URRUNDIK

Amaren izarra

Ondo gomuta dot... Atzo zala dirudi...

Sei urte neukazan... Goiza iluna. Etxean, negarra ugari, joan-etorri asko, buruak makur, guztiak isil. Isilik gelak, isilik leihoak, isilik ezkaratza. Heriotzea, bere jantzi azalaz, sartu da gure artera...

⁵ *Kistar*: kristau.

«Ene semetxoak! Ni banoa. Jaunak deitu nau. Zerura noa. Izan zaiteze onak beti. Zerurantz begiratuta ikusiko nozue. Ez zaituet ahaztuko...

Eta zuk, neure bihotzeko senar maiteorrek...»

Aitak negarrez ziharduan.

Urteak joan dira. Jirabira asko emon dauz ludiak⁶. Ipar gogorak astindu dabez geure mendiak. Baita neure bihotza be. Neure burua sarri dakust arriskuan. Ontzitxo baten antzera, haruntz eta honuntz nabil bizitzako itsaso amorratuan.

Baina..., goizeko izar ederrak dizdiratzen dau ekaitz artean!

«Izan zaiteze onak beti. Zerurantz begiratuta ikusiko nozue.»

Neure amaren azken-hitzak Jaunaren bidean zehar zuzen naroe. Zerurantz begiratuta, neure ama hantxe ikusten dot, altxoa zabal, irri-barre gozoaz beragana deika.

Hil eta gero be, amak maite nau. Oraindik bizi da...

Goian dago!...

*Ertzetar Erramon
Leuven, 1933-XI-18*

III

EKIN, 1933ko lotazilaren⁷ 2an (96. zenbakia)

URRUNDIK

Bestelakotasunean batasuna

Txabier Deunari, bere jai-egunean

Lurrean zehar zabaltze soila ez da katolikotasuna.

⁶ *Ludi*: mundu.

⁷ *Lotazil*: abendu.

Herri bat lurbira guztian zabaldua egon leiteke katolikotasun bagarik⁸. Beste herrien antza, ohiturak eta bizi osoa birrinduaz badoa, herri hori ez da katolikoa, orokorra; hangoa edo hemengoa baino.

Lurbira guztian zabaltzeaz ganera, toki guztietan berta-bertakoa egitea, leku guztietakoa izatea dino katolikotasunak.

Herri guztiak, euren bizia, euren ohitura onak, euren bestelakotasun zindoa galdu bagarik, uskurtza⁹ bat hartzen dabenean, uskurtza hori orokorra dala esan dagikegu.

Bestelakotasunean batasuna, bat bakarra eta toki guztietakoa izatea. Horra hor katolikotasuna.

Gure Uskurtza Deuna orokorra da, eta bera bakarrik izan be.

Haugaitik, Jesukristo judutarren artean judutar egin zan, eta toki guztietakoa egiten da Eleiza Ama. Herri bakotxean bertako jaupariak¹⁰ nahi dauz, bakotxari bere hizkuntzaz hitz dagio. «Herri, gizeli¹¹ eta hizkuntza guztiak bere menpeko izango dira; guztiak Jauna goretziko dabe» (Dan. 7, 14).

Eleizea ez doa herrien bizia hiltera; euren akatsak zuzendu, euren ohitura onak obetu eta eurak Jaungoikoagana eroatera baino.

Eleizan ez dago erbestekorik. Herri guztiak dira bere seme laztanak. Beragan gizon guztiak anaiak gara.

Eleizea bat bakarra da: buru bat, bihotz bat. Baina, buruko oldozmen¹² eta bihotzeko maitasuna agertzeko, hizkuntza asko, gizenda¹³ asko dauz.

*Ertzetar Erramon
Leuven, 1933-XI-27*

⁸ *Bagarik*: barik, gabe.

⁹ *Uskurtza*: erlijio.

¹⁰ *Jaupari*: abade.

¹¹ *Gizeli*: tribu, arraza.

¹² *Oldozmen*: gogoeta, hausnarketa.

¹³ *Gizenda*: gizateria.

IV

EKIN, 1933ko lotazilaren 16an (98. zenbakia)

URRUNDIK

Beragan maitasuna

Goibel eta bihotz-ilun zakust, ene langile.

Ezagutzen dot zeure kezka horren iturria. Estutasunean zagoz. Ez dozu biharko ogiaren ziurtasunik. Hotza dozu etxean, lan eza atean. Zulatuta daukazu udabarriko egun alaian jaso zenduan etxea, aloger txatxarra¹⁴ dozulako; emazteak lan egin behar, umeen hazkundera bertan behera itxita... Diruzalekeriaren menpean zara... Ez deusue emon adimena landuteko astirik ez erarik, eta basatia zareala dinotsue.

Min dozu, anai. Eta zeure minak min damoste. Bizikera hobe behar dozu. Zeure lanari dagokion bizikerea lortuteko zeugaz izango naz beti.

Maite zaitut, langile. «Langile bat baino ez zara», goitik behera begiratuaz dirautsue. «Langile bat baino ez naz», dinozu zeuk be burua makurtuaz. Bai, langilea zara! Eta langilea zarealako maite zaitut, zeugan dagoan handitasuna ezagutzen dotalako.

Jopu¹⁵ zintzan aldi baten. Gizonaren antza zeunkala gizon izan barik inoen, abere bat zintzala.

Baina zeuretzat be agertu zan Askatzailea: Kristo geure Jauna.

Lana dala gizon guztien eginbeharra, lanik apalena be gizonaren zeregin egokia dala irakatsi deusku. Bere jaiotza eta bizikera txirogaz zeruetaraino jaso dau ezeukitasuna, txiro iza-

¹⁴ *Txatxar*: ziztrin, baliobako.

¹⁵ *Jopu*: morroi.

tea lotsagarria zala inoenak guzurtuaz. Langileen eta behar-tsuen artean dira bere gozamen gozoenak. Langile baten semea lez igaro nahi izan dau ludiaren aurrean; bere bizitzearen zatirik ederrena lan behartsuan emon dau. Ez al da Bera, ba, Mirenen Seme Arotza?

Josuk emon deutsu askatasuna, langile. Maite gaitu Berak. Bere arnaseagandik iges egin dauenean gizarteak, barriro jopu bihurtu zaitue.

Ames egin dot.

Langile bat zan. Lanaren lanaz nekatuta egoala, maitasun-hitzak jatorkoz belarrira: «Behartsuori, zatoz neugana, neugan dozu zoriona eta».

Behin baino sarriago entzun dauz horrelako hitz ez-titsuak; hitz hutsak zirala laster jakin be bai.

Gaurko deia, baina, Kristorena zan.

Kristok luzatu deutsan eskua hartu dau. Bardinak ziran bion eskuak! Esku gogorrek, latzak..., langileen eskuak!

Kristoren aurrean belaunbikotuta¹⁶ ikusi dot. Egiatzko laguna aurkitu dau, bila ibili dan laguna.

Bai, langile. Josugan dozu zehaztasuna, Beragan maitasuna.

*Ertzetar Erramon
Leuven, 1933-XII-11*

¹⁶ *Belaunbikotu*: belaunikatu.

V

EKIN, 1933ko lotazilaren 23an (99. zenbakia)

URRUNDIK

Gabon-abestiak

Kresal-usaina daroe hemen agertzen dodazan abestiok. Lekeitiokoak dira. Herriaren sustraietatik datoz eta eresi polita dabe. Aspalditxua da ez dodazala entzun Arranegiko zabalean; baina gaur gabaz euren durundia belarrian izango dot, euren oihartzun bizia bihotzean.

*Abendu santua da ta,
bizar da denporia.
Orain kanta dezagun
Jesusen jaiotzia.
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

*Hau dala jaio..., jaio...!
Hau dala jaiotzia!
Semia jaio ta gero
Ama dala dontzeilia.
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

*Izarra bularrian
Semia sabelian,
ha bai dontzeilia ederra
itsasuaren ertzian!
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

*Izarrak urteten dau
odeiaren artetik,
bai eta Semiak be
Amaren sabeletik.
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

*–Ama Birginia,
nun dozu Semia?
–Horra nun daukazun
Belengo Portalian.
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

*Belengo Portalian
dago Jaungoikua;
baina dirudi
dala haragizkua.
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

*Belengo Portalian
lasto biren ganian
botzagaz ikaraz dago
jaio dan Infantia.
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

*Hotzagaz ikaraz bazagoz,
ez zara zeu pobria.
Belenen josita dago
zeuretzat erropia.
Maria Jesus, Jesus Maria, Maria Jesus...*

E[rtzetar Erramon]

VI

EKIN, 1935eko epailaren¹⁷ 30ean (142. zenbakia)

Luginen auziak

Luginen bizitzak –gizon guztienak lez– mueta asko dauz eta bizitza mueta bakoitzak bere kezka eta auziak dagerskuz.

Luginak, baserritarrak, beharrian ugari dabez: batzuk, gizon guztienak izan arren be, luginen artean antz bereziaz agerzen diranak; beste batzuk, barriz, luginari eurai bakarrik jagokezanak. Arimearenak dira batzuk, besteak gorputzarenak.

Beharrian guzti horreik aintzat hartu, eratu eta asetu: horixe da luginen alde lan eder eta sakona egitea.

Lurragaz dauezan hartu-emonak hobetu behar dauz luginak.

Bere izerdiaren sari ordez lurrak damotsazan emoitz eta zituakandik¹⁸ onurarik handiena atera behar dau.

Gizartean –agintari, bere ideko¹⁹ eta beste gizarte-taldeen aurrean– dauezan eskubideak zaindu eta aldeztu behar dauz; besteen eskubideak, baina, ez ikusi egin barik.

Gizon izan behar dau: sendi-bizitza egokia eroanez, adimena landuaz, jaube izatera helduaz...

Notina²⁰ danez, bere bizitzako Azken Helburura jo behar dau, Jaungoikoagana, helburu hortara daroen bideak jarraituaz.

Hitz baten esateko: luginak bere bizikerea goratu eta hobetu behar dau, luginntza, ekonomi nahiz gizarte-bizitza sendoa eroanez, jakintza nahiz uskurtz bizitza sakona biziaz.

¹⁷ *Epail*: marti, martxo.

¹⁸ *Zitu*: fruitu.

¹⁹ *Ideko*: kideko, moduko.

²⁰ *Notin*: pertsona.

Asmo horreik aurrera eroateko behar-beharrekoa da luginen alkartasuna, gizon bakoitzaren indarrak neurtuak dira eta. Alkargo horrek lehen aitatu diran luginaren bizitza mueta guztien ardurea hartu behar dau, luginen bizitza osoari behar dan batasuna emon gura badeutso.

Ez da nahiko, baina, alkartuta egotea; alkargoak bizitza sendoa euki behar dau, eta bere asmoak aurrera eroateko behar dau ezan bitartekoen jaube izan behar dau. Bazkideen txalo eta berotasunak izan beitez bazkunarentzat, baita bazkide-sari egokiaren ordainketa zuzena be.

Zenbat bazkunagazko laguntza handiago, hainbat indartsuago bazkuna; zenbat bazkuna indartsuago, hainbat bazkideen eskubideak zainduago.

Alkargoan sartzea, ba, behar-beharrekoa da luginentzat, euren buruak aldeztuteko bide bakarra horixe dalako.

Alkargo-bizitzak eginbehar barriak dakarz, aurki; baina eginbehar horrein zehatz betetean egon be dago, alkargoaren indarra eta alkargokideen zoriona.

Ertze

VII

EKIN, 1935eko jorrailaren²¹ 20an (145. zenbakia)

Itsas gazteen alde

Gazteen artean uskurtz eta hazkunde-ekintza dagien bazkunak banatu eta berezitu egin behar dirala argiro dakusgu. Gazte guztiak gazte dira; baina gaztaroak damotsezan kezka eta auziak ez dira beti bardinak. Guztientzako diran auziak be –uskurtza, jakintza, eta abar–, gizarte-talde bakoitzean antz bereziagaz agertzen jakuz. Gizarte-talde bakoitzarentzat berezi

²¹ *Jorrail*: apiril.

diranak be badira –langintza...–. Hori dala-ta, uskurtz eta hazkunde-ekintza sendo eta indartsu darabilen herri eta laterrietan, berezituta ikusi doguz lan eder hori dagien bazkunak. Lugin gazteentzat bazkun bereziak dagoz, langile eta ikasleentzat be bai. Ugazaba eta dirutsuen semeak be eurenak dabez. Horrelaxe, bizi-bizi agertzen da, gazteak eurak diran lez hartuaz eta euren bizitza bereziak –eguneroko bizitzak– agertzen deuteszan auziai erantzun egokia emonaz. Bazkun berezi honeik alkartuaz, gaztedi osoari zuzenbide bat emon leikio.

Gaztedi bat izan da, baina orain arte bertan behera itxita egon dana: Itsas gaztedia. Itsas gazteak izan dira eralguntza²² berezirik euki ez dabenak, eta toki askotan eralguntza bat be barik dagozala esan dagikegu.

Katolikook lozorroaldi ederrak egin doguz. Jarraitzaile lez agertu izan doguz sarriegi geure buruak.

Zuzentzak eta arimen zaletasunak higituta, beste bagarik, auziai erantzuna emon beharrean, beste batzuk –Eleizearen arerioak– lanean hasi arte lotan egon gara. Eta arimai kalte handiak egin deuteszan ondoren, lehen galdu genduana irabazten itsumustuan sarritan gabilz.

Baina, gure nagikeria argiroen agertzen dan tokia itsas gizonen artean da.

Kistoren²³ lehenengo ikasleak itsas gizonak ziran. Eurak izan dira, kistar irakatsiak ludi guztian zehar zabalduaz, gizonak gaizkatu dabezanak. Itsasertzeko herrietan bere ahaleginik sutsuenak egin ebazan Paul Deunak. Hori eta guzti be, ez da hartu itsas gizonen artean kistar bizitza sendotu eta bikainduteko ardura handirik. Jazoera negargarri hau ez da herri batekoa edo bestekoa, ludi guztikoa baino. Herri eta laterri guztietan, itsas gizonak egon dira guretzat aldi luzean azkenengo tokian.

²² *Eralguntza*: eskuordetze, delegazio.

²³ *Kisto*: Kristo, Jesukristo.

Itsas gizonak izan ziran Kistoren lehenengo ikasleak. Lehenengoak azkenengo izango diralako edo, bertan behera itxita euki ete doguz?

Baina, begoz pozik itsas gazteok! Eurentzat be gaizkatasun²⁴ eguzkiak itsasotik urten dau. Sortu da euren ardura izango dabena bazkun ederra. Prantzia²⁵ da beronen jaioterria, Britainako Saint Malo bere sehaskea: Itsas Gaztedi Kistarra (*Jeunesse Maritime Chrétienne*) daroa izentzat. Ludi guztira zabaltzera deitua da.

Itsas gazte guztiak alkartu, euren beharrizan guztiai erantzun egokia emon, euren bizitzaren mueta oro Helburu Gurenaren argipean batu, itsas gizonak itsas gizonen bitartez gaizkatu, itsaso-arazoetara Kistoren arnasea eroan... Horra hor Itsas Gaztedi Kistarrak egin gura dabena.

Bazkun zoragarria hauxe! Lanbide ederrak dauz beronek; igali ederragoak lortu dauz bere bizitza laburrean. Gure Herrian be, ez al daiteke egin lan eder hau itsas gazteen alde?

Bego, baina, hurrengora arte bazkun horren eralguntza, lanbide eta zitu ugariak azaltzea.

Ertzetar Erramon

VIII

EKIN, 1935eko orrilaren²⁶ 4an (147. zenbakia)

Itsas gizonen auziak

Gure itsas gizonen bizikera osoa ezin daiteke lerro batzuk agertu. Gai honeri hurrengoan be jarraituko deusagu eta, gaurko idazlan hau sarrera bat baino ez da izango. Itsas gizonen tal-

²⁴ *Gaizkatasun*: salbazio.

²⁵ *Prantzia*: Frantzia

²⁶ *Orril*: maiatz.

de bereziak zeindu²⁷ eta talde bakoitzaren auzi urtenenak²⁸ agertu; horixe da idazlan honen bitartez egin gura doguna.

Hiru taldetan banatuko doguz gure itsas gizonak: saleroste-ko ontzietan dabilzanak, arrantzaleak eta guda-ontzi mutilak. Talde bakoitzaren auziak mueta askotakoak dira: uskurtz auzia, gizarte-auzia, langintza-auzia, jakintza-auzia...

Saleroste-ontzietan

Gure herrietako hainbat itsas gizon dabilta salerosteko ontzietan. Txikiak eta handiak dira ontziok. Itsas gizonen arazoak be ez dira bardinak. Ontziburuagandik hasi eta bere ama alar-gunari lauko batzuk eroatearren itsasora urten eban *txo* deritxon mutilagana heldu baino lehen, gizon erreskada luzea igarro da gure begien aurretik. Gizon bakoitzak bere auziak dauz; guztientzako diranak be badira.

Auzi guztietatik sakonena, euren gogo-bizitzarena da.

Saleroste-ontzietako gizonak gogo-bizitzatik urrunduta da-go. Gaztetxo zirala euren herrietatik urten eben, bizitzako sa-soirik garrantzitsuenean urten be. Eleizatik urrun, senditik kanpora, adimenak argitu eta landuteko ereti²⁹ barik, hor dabilta gure itsas gizonok, ludi zabalean zehar, kaietako arrisku eta galdubide tartean, erbeste-bakartadeak inguratuta, ontzi-bizike-reagaz aspertuta. Gogo-bizitzaren sustrai sakonenak eurakan-dik urrun dira. Sendi-bizitza, baita jakintza-bizitza be, itxaropen edo gomuta bat baino ez da eurentzat. Gazteentzat, itxaropena. Urteak aurrera doazanentzat, gomutea. Batzurentzat, biharkoa; besteentzat, atzokoa. Inorentzat be ez gaurkoa. Inorentzat be ez egitasun³⁰ bizia.

²⁷ *Zeindu*: bereizi, ezagutu.

²⁸ *Urten*: nabarmen.

²⁹ *Ereti*: abagune, aukera.

³⁰ *Egitasun*: ekintza.

Arrantzaleak

Ur handietan dabiltzanak be badira; baina gure arrantzale gehienak arrantzu txikian dabiltzala esan dagikegu.

Arrantzalearen irudia txeratsua da benetan: arpegia mehe, okotza luze, burdingorri³¹ margoa, bihotz-zabal, trebe, eleizkor, abeslari...

Baina arrantzaleen bizikerea estua eta gogorra da.

Gaztetxutikan ikastolara joateari itxi deusie. Adimenak argituteko erreztasunik ez dabe.

Ez da iraunkorra euren ogia. Gaur, ugaritasuna; bihar, ezkaratzean hotza.

Arrantzurako darabilezan tresna eta erak egokiak ete dira? Euren gizarte-eralguntza, osoa eta gaurkoa?

Gizon onak dira; baina kistar bizitza hotzitzen doa euren artean.

Ardantegiak kalte handiak dagioez. Baina, ba al daukie euren etxeetan sendi-bizitza egiteko toki egokirik? Ba ete dabe lagun arteko autuak erabilteko ardantegiak baino leku hoberik?

Arrantzaleen emakume zintzoak! Eurok dira etxeari eusten deusienak. Sarritan, baina, lan gogorregiak darabilez, emakumei ez jagokezan lanak, batez be emakume ezkonduai...

Guda-ontzietan

Hamazortzi urte dauz mutilak. Laster joango da guda-ontzira. Mutil on horrek ba al daki zer aurkituko dauen handik zehar? Ba al dauka bere gorputz eta arimearen ardura izango dauen lagun on bat? Gurasoakandik urrun, herritik ataz³², lagun deungen artean baliteke, errez galtzen dau bere bizitza: soin eta gogo-bizitza.

³¹ *Burdingorri*: kobre, metal.

³² *Ataz*: kanpora.

Gudaritza ondoren agurtu dot. Txapela berezikiro ipinten ikasi dau, baina bai gauza negargarri asko be...

Dagigun lana!

Itsas gizonen bizitza estua eta latza da. Euren bizikerea goratu daiten lan sakona egiteko ordua heldu da.

Urrun dabiltzan itsas gizonak sendiratu egin behar dira. Uskurtza eurakana eroan. Atzerriko galdubideak hesitu³³. Jakintza-bizitza izan dagien erreztasunak emon. Euren lana arindu. Zahartzaro atsegingarria atondu.

Arrantzaleen bizikerea goratu egin behar da. Arrantzu-ara-
zoak sakon ikasi. Lanbide eta tresnak bikaindu. Gizarte-eral-
guntza hobetu. Uskurtz bizitza sendotu, ekandu onak indartu.
Adimenak landu.

Guda-ontzietara doazanen ardurea euki behar da, etxetik urten baino lehen, ontzietan dabiltzanean.

Itsas gizon guztiak euren bizikeran aurkitu behar dabez Helburu Gurena jadesteko lagundu behar deutseezan bideak.

Ertzetar Erramon

IX

EKIN, 1935eko orrilaren 11n (148. zenbakia)

Kresala eta negarra

Ba ete da ludi honetan negar egin ez dauen gizasemerik? Guztiok izan doguz negarraldi ugariak. Maite doguzanak, «otoi bat eta gero arte» esanda, urrundu jakuzanean..., geure buruak hobenlari³⁴ aurkitu doguzanean..., minaren erpeetan lotuta gengozanean..., gizonen maltzurkeriak zirala-ta... Nork zenba-

³³ *Hesitu*: hesiak ipini, inguratu.

³⁴ *Hobenlari*: errudun, iraintzaile.

tu, baina, gure bizitzako une itun, estu, larriak? Askotan bai, matrailak igurtziaz, negar-tantak heldu dira gure ezpanetara. Eta pitxi-tanta³⁵ horreik gazitasunez beterik, mingoitzak³⁶ aurkitu doguz...

Udako egun eguzkitsuaren ederra! Itsasertzean ordu batzuk emoteko berebizikoa. Honelako egunen baten Kantauri hegian zintzan, irakurle. Legorra beroaz ketan egoan. Itsasoa anaikor agertu jatzun, besoak zabal, zeure artegaldiko³⁷ lagun ona izan nahirik. Hantxe, ur-izara tartean atsedendu zintzan. Harrerearen ederra! Nun zengozan be ahaztu egin jatzun. Izan be, itsasoaren bultzakada gozo hareik!... Baina, estualdi bat izan zenuan, eta haize garbia zeure birietara eroan nahirik, kresala sartu jatzun parra-parra eztarrian zehar. Ahoa mingoiztuta zenuan, kresala gazia zala ekizun³⁸...

Negarra, gazia. Kresala be bai. Biok gaziak. Kresala, negarra. Bardintasan hau ikusiaz kezkaz beterik nago. Kresalaren ganean bizi diran gizon jatorrak gomuta dodaz, gure itsas gizonak. Euren bizitza gogorra da, estua, mingoitza, gazia. Kresal-bizitza, negar-bizitza da.

Kresala gazia izango da beti, negarraren antzera.

Baina, negar gozoa be bada. Eta kresala be bihurtu bedi ur gozo gure itsas gizon zintzoentzat!

Ertzetar Erramon

³⁵ *Pitxi-tanta*: izpi-tanta.

³⁶ *Mingoitza*: mingots, mikatz.

³⁷ *Artegaldi*: estualdi, egonezin.

³⁸ *Ekizun*: zenkian (aditza).

X

EKIN, 1935eko dagonilaren³⁹ 3an (160. zenbakia)

Bertso-doinuak

Atal barri bat agertzen dogu oraingo zenbakian: euskal bertsoen doinuak dakarzan atala. Doinuok batu eta argitaratutea, behar-beharreko dala deritxagu Euskal Herriaren jakintza muelak ondo aztertu eta ezagutzeko. Horrezaz ganera, nork daki norbaiten barruan erdi hilik egoan bertsolari-txingarra biztuteko be ez ete diran izango doinuok?

Jakintza lana, etorriari deia..., baita abesti polit eta eresi egokiak zabaltzeko bide ederra be! Kanta badaezpadako eta nazkagarriak zabalduaz doaz gure herrietan. Gaitz horrerri osakaia ezarri behar jako. Eta osakai sendoenetariko bat, euskaldun bertso eta doinu ederrak zabaltzea da, guk uste izan.

Aspaldion genbiltzan kezkatu, eta azkenean be geure asmo hori aurrera daroagu.

Gaurtik hasita, sailean argitaratuko doguz bertso-doinuak. Hasiera ona emon gura izan deitsagu atal honeri, gure bertsolarien buru eta Muxikako Urretxindorra dan Enbeitatar Kepa zintzo eta ospetsuaren bertso-doinuak argitaratuaz. Eskerrik asko, Kepa!

Beste eginbehar gozo bat be betetera behartuak gagoz. Enbeitaren bertso-doinuok batu dauezana, Azkoititar Gotzon karmeldar aba dogu. Esku-zabalez eta pozik haundienagaz emon deuskuz doinuok. Geure esker onik beroena zeuretzat be, Gotzon aba!

Euskaldunok kantari ei gara. Ez da izan be hori izakera txarra! Abestu dagigun, ba!

Ertze

³⁹ *Dagonil*: abuztu.

XI

EKIN, 1935eko dagonilaren 10ean (161. zenbakia)

Gizartearen geisoak I (Biraoa)

Lehengo asteko EKINEan, *Gama*⁴⁰ argiak zuzen eta zietz⁴¹ inarduan gaur eguneko jazoerai buruz. Gure gizartearen zauri eta ondoezak agertzen euskuzan; zauri horrei ezarri behar jaken osakaiak aurkituteko asmoz, bakoitzak bere eritzi⁴² eta asmoak agertu dagiazala eskatuaz.

Dei entzungarri horri erantzunaz, neure eritzi eta asmoak be agertu behar dodaz. Ez da zeregin gozo eta atsegintsua gizartearen ustelkeriak argitara ataratea; gitxiago oraindik norberen gizartearen –Euskal Herriaren– geiso⁴³ eta ondoeza agertzea. Baina, arazo pozgarria izan ez arren be, behar-beharrekoa dogu, gure Herriaren alde jokatu eta geure eginbeharrak bete gura izan ezkeru.

Zorigaitoz gizartearen geisoak ugari dira eta, aurrerantzean be ekingo deutsagu gai honeri gaurko idazpuru honegaz.

Gizarte-geisoetatik higuingarriena biraoa dogu.

Hobenik⁴⁴ astunena berau da izan be, Jaungoikoaren aurka zuzen-zuzenean doalako, bere izen deuna lohitu eta bere haunditasuna ukatu nahirik.

Biraolaria koldar eta esker txarrekoa baino besterik ez da, norberen hutsegite eta balioezen⁴⁵ errua norberen gain ezarri beharrean, Jaungoikoa errudun egin nahi dauelako.

⁴⁰ Gabirel Manterola (1890-1977) idazlearen ezizena.

⁴¹ *Zietz*: zehatz, artez.

⁴² *Eritzi*: eretxi, iritzi.

⁴³ *Geiso*: gaixo.

⁴⁴ *Hoben*: erru, irain.

⁴⁵ *Balioez*: ezgaitasun, ezintasun.

Biraolaria lotsagaldukoa da, hitzik lohi eta zantarrenak aho-mihinean darabilzalako eta besteai zor deutesen lotsea ukatuten deuteselako, zio⁴⁶ bagarik euren siniste gurenen aurka eginaz.

Hobenik astunena, koldarkeria, lotsarik eza... Horixe dozu biraoa.

Eta izurri bildurgarri hori gure herri eta baserrietan be za-balduaz doa. Batez be, euren herrietatik urten eta besteetara doazanean, orduan dira bai entzutekoak gure gazte askok darabilezan berba lohi eta birao biribilak!

Gaitz higuigarri hori kendu egin behar da! Osakaiak?

Erlijino-hazi ikaskuntza! Ez edozelakoa, baina, ez azalekoa, ez buruz ikasitakoa, ez erdi lo entzunikoa. Gizon guztiai bizitza osorako zuzenbide sendo eta sakona emongo deutesen eta zorigaitzoz urriegi dagoan erlijino-hazi ikaskuntza argitsua baino. Geure hitzaldi, hautu eta onuetan⁴⁷ horraxa jo behar dogu beti. Onean garrasika baino lan hobea egingo dogu.

Baina geugan doguzan bide leun guztiak ibili ondoren, biraoa gizartearenganako lotsabakokeria haundiena da eta, hor dogu legea esku gogorra ezarteko. Legeak erlijinoaren aurka doazan hitz eta egiteak zigortuten ditu. Horixe dino *Código Penaleko* 235garren arauak.

Biraoa entzuten dogunean, lege hori bete eragin behar dogu. Agintariak dira legeak betearazoteko; eta agintariok koldarkeriaz huts emoten dabenean, behar dan lekura eroan behar dira.

Horixe da gure eginbeharra. Gizartea guztien onerako da. Guztien ona, gizonarentzako. Eta gizona, Jaungoikoarentzako baino ez. Gizartea garbitu egin behar dogu. Jaungoikoa goratu.

Ertze

⁴⁶ *Zio*: arrazoi, zergati.

⁴⁷ *Onu*: aholku, burubide.

XII

EKIN, 1935eko dagonilaren 17an (162. zenbakia)

URRUNDIK

Gaztedi ederra!

Euskal Herrian idatzita egon arren, urrundik datorkizuz, irakurle, lerro honeitan azalduko deusudazan izparrak⁴⁸. Urrundiko oihartzunak dozuz, atzerri aldean nenbilaneko gomuta gozo biziak. Atzerritik datorkigun guztia ez da txarra, ez. Atzerrietan gauza eder asko be badira. Eta zentzundun gizonak bazter guztietan aurkituten diran gauza onak batu behar dauz, norberen bizitzea sendotu eta edertutea gura badau. Jakina, ezer egin baino lehen, herri bakoitzaren bereiztasuna⁴⁹ begien aurrean euki behar dau, bizitza berezi horretan alderdi guztietako gauza onak ahal dan egokien sartu dagiazan.

Atzerritik gauza on asko datorkiguz. Eurotatik bat, gaztedi katolikoaren eralguntza ederra. Gai honetan eredu bikaina dogu gehien be Belgikako laterria. Gaztedi katolikoa ondo eralduta dago herri horretan.

Gaztedi arloan lan onuragina⁵⁰ egin gura bada, gizarte-taldeak begien aurrean euki behar dira. Gizarte-talde bakoitzak bere beharizan eta izakera bereziak ditu eta, gaztediari emon behar jakon hazi-ikaskuntzak bereiztasun guzti honeik aintzat hartu behar dauz. Hori dala-ta, Belgikako gaztedi katolikoa bazkun berezi askotan eralduta dago. Ikasleak euren bazkuna dabe; langileak be euren; luginak eurai dagokiena dabe... Itsas gazteak be Prantzian bazkun eder baten dagoz.

Auzi garratz bat dogu orain. Gaztedi katolikoaren bazkunak gizarte-talde bakoitzak dauezan besteakin, zeintzuk hartu-

⁴⁸ *Izpar*: albiste.

⁴⁹ *Bereiztasun*: bereizkuntza.

⁵⁰ *Onuragin*: probetxugarri, mesedegin.

emon euki behar ete ditu? Esaterako, Langile Gaztedi Kistarra langileen eralguntza osoagaz alkartuta egon behar ete da, ala eralguntza horretatik ataz? Eztabaida zoliak dira gai honetzaz. Gaur oraindik Belgikako Langile Gaztedi Kistarra, Katoliko Ekintzan eta Langileen Alkartasunean dago batera.

Belgikako gaztediaren eralguntzeak irakatsi eder bat damosku euskaldunoi. Belgikako laterrian enderri⁵¹ haundi bi dagoz: *Vlaanderen* eta *Wallonnie*. Enderri bakoitzak bere hizkuntza berezia dau, eta bereiztasun hau kontuan hartu dabe gaztedia eralduteko orduan. Enderri bakoitzeko gaztedi katolikoak euren eralguntza bereziak dabez. Bakoitzak euren hizkuntzea darabile, askatasun osoagaz batera. Laterri osoan zerbait egin behar dabenean, alkar hartzen dabe; beti, baina, bakoitzak bere bereiztasunari eutsiaz.

Gaztedi guzti horreik lanbide ederrak darabitez: ikas-batzak, hitzaldiak, isil-egunak, gogo-inarkunak⁵², lan-ikastaroak, antzerkiak, abestiak... Hazi-ikaskintza osoa damotse euren bazkideai, eta egundo inon lortu diran onurarik ederrenak euraganatu dabez.

Gaztedi ederra haxe, bai! Noiz izango ete dogu Euskal Herrian horrelako gaztedia?

Ertze

XIII

EKIN, 1935eko dagonilaren 31n (164. zenbakia)

Gizartearen geisoak II (Ezjakintasuna⁵³)

Gure Herriak iraun behar badau, zindotasunez iraun behar-ko dauela deritxat. Biztanlez gitxi gara, lurraldez ez haundi. In-

⁵¹ *Enderri*: nazio.

⁵² *Gogo-inarkun*: gogo-jardun.

⁵³ Geuk ezarritako azpizenburua.

guruan doguzan herriak gu baino indartsuagoak dira, izkila-in-darrez behintzat. Kristinau-gogoz, ekandu onez, kulturaz, eralguntzaz... irau beharko, ba, guk euskaldunok.

Horigaitik, gure Herriaren akats eta ondoezak agertzea beharrekoa dala deritxagu. Ez gogo txarrez gure Herriari irri eta barre egiteko, ondoezok osatu eta akatsok zuzenduteko asmo onez baino. Herriaren alde ezer egin gura bada, nahitanahiezkoa dogu herria ezagutzea, gure lanak eta indarrak zuzenbide zurrak eroan dagien. Herriaren bizitza mueta guztiak arakatu behar dira, eurak dabezan alde on eta txarrak azalduaz, zaindu behar dana eta baita aldatu behar dana be jakin dagigun. Itaunketa *–enquôte–* sakon bat egitea beharrekoa dogu. Itaunketa horretarako gai batzuk emoteko asmoz sortu zan atal hau.

Ezagutzea ez da nahiko, baina. Gizona bera da gure idazlan honein gai, gizon-egintzai⁵⁴ buruz dihardugu. Eta gizonaren aurrean zirkinik egin barik ezin egon. Gizona dinoanak helburua dino. Helburu horren mailara goratu behar da gizona, eta goratze hori egiteko gai diran bideak aukeratu, eta bide horreitak zehar gizona zuzendu. *Zer dan* itaunketeak esango deusku *zer izan behar dan*, goitiko egia sakonak; *izan behar dan mailara dana* eroaten ahalegindutea, horixe dogu gizarte-lana eta eleizazaletasuna.

Gizarte-arazoetan lan egin gura dauenak hiru gauza horreik jakin behar ditu. Hirurok dira beharrekoak, bata-besteari dautsala dagoz eta. Ez da izango gauza haundirako zilegizti⁵⁵ eta egia sakonak jakitea, auzien zertzelada nahastau eta bizitzako jazoerak ezagutzen ez badira. Zilegiztiak zuzenbidea baino ez damosku; teknikea be behar da egia haundi-haundi horrein argiz auziak ebazteko. Alperrik ibiliko da gizarte-lanean, nora jo eta zelan ibili argi eta garbi ez dakiana be. Ziurtasuna be beharrekoa da, helburura garoiazan biderik egokienak aukeratzeko.

⁵⁴ *Egintza*: ekintza, egite.

⁵⁵ *Zilegizti*: moral.

Gizarte-lanetarako, ba, gertakizun haundienetarikoak behar dira. Ezer egin baino lehen *ikusi eta ikasi* egin behar dogu, auziak gaitzak eta sailak diralako eta norberen hitz eta egitadak oihartzun kaltegarria euki leikeelako. Gizarteko auziak bata-bestegaz alkartuta dagoz eta alderdi asko dabez. Hazi-ikaskuntza *osoa* behar da, ba. Gizarte-arloan berezikiro lan egin gura dauenak, ondo egingo dau zilegizti, lege-jakintza, politika, soziologia, ekonomia, psikologia, edesti, etnologia, lutelesti⁵⁶..., eta abar ikasiaz. Guztian behar izango da.

Baina..., gizarte-arazoetan aitua⁵⁷ izateko behar diran baldintzak agertuaz, ez ete dogu gizartearen eri edo geisoren bat azaldu? Izan be, gaur egunean edonor dogu soziologo, edonor gizarte-jakintzan aitua, edonor gizon eta herriak nahastauta darrabilezan auzi garrantzitsuenetan argi-emoile, edonor idazle, edonor hizlari...

Ertzetar Erramon

XIV

EKIN, 1935eko irailaren 28an (168. zenbakia)

Burua jaso behar badau...

Euskereak burua jaso behar badau, bere alde gaur egiten diran lan askori beste bide bat emon behar jakela-ta nago. Batez be herriarentzako diran idazleak aldakuntza haundiak egin behar dabez, neure eritziz.

Idazten danean, irakurleai zerbait esateko asmoz idazten da. Irakurleak eurai zuzentzen jakena ulertu egin behar dabe. Bestela, alperrik izango da ezer idaztea.

⁵⁶ *Lutelesti*: geografia.

⁵⁷ *Aitua*: aditu, jakitun.

Euskaldun irakurleak euskera gehiago jakin behar leukeela? Eta ez badakie, zer? Eurak diran lez hartu behar dira, eta eurak dagozan mailan jarri. Prantses⁵⁸ berbetea ez dakianari, zergaitik prantses mintzatu? *Euskera garbia* ez dakianari, zergaitik *euskera garbiz* hitz egin? Batak ez besteak ez dabe ezer ulertuko. Idazleak irakurleakin berba egiteko asmoa eban, eta ez dau ezer lortu.

Euskera bihurra alde batera itxi behar dogula deritxat. Hitz barrizaleak, pentsau ete dabe zeintzuk nahaste sortuko diran *euskaldun zabarron* buruetan? Oinetik oinera etxe eta herrietan erabili dan euskerea goizetik gabera aldatzea, asmo erreza eta egokia ete da? Eta euskaldunok darabilgun *euskera bizia* baino beste euskerarik ba ete da?

Euskera bihurra irakurtea neketsua da, ez da atsegin. Irakurle landuai hori jazoten bajake, uste dot baserritar gaixoai bardin berebat⁵⁹ jazoko jakela.

Euskerea legundu egin behar dogu, eta baserri eta euskal herrien aldera jo. Eta ez genduke gitxi lortuko. «Ase nintake ni, plazetan eta karriketan, Eskualerrian, mintzo balite haurrak eskuaraz baserriko erderatiko hitz guztiekin.» Horixe diraust euskaltzale argi batek. Zuzen dagoala deritxat.

Gure eritzikoa ez danak aproba bat egin lei: euskera garbi-garbiz, *euskera barriz* idatziriko asteroko bat argitaldu. Nik neuk behintzat ahal dodan ginoan lagunduko neuskio, idatziaz eta zabalkundea eginaz. Garatz edo negozioaren irabazi osoak berentzako izango litzakez. Baina..., garatz horrek ezer emon bai, gero?

Euskerea hil zorian dagoala-ta negarrez gabilta. *Euskera biziari* eutsi behar deutsagu, ba. Bizitzako arazoetan euskera bat darabilgu; idazte orduan beste bat. Bikoizkeria hori galgarri jakula uste dot. Eta ez da bape mirari, gehiegikeriagandik

⁵⁸ *Prantses*: frantses.

⁵⁹ *Berebat*: modu berean.

iges eginda, geure umearoan ikasi, geure etxeetan erabili eta lagun artean sendotu dogun euskera gozo, herritar, bizi eta atseginaz geure euskal gose-egarriak asetuten badoguz. Orduantxe nabaritzen dogu geugan euskal arnasea eta arimea. Mundu *artipizialetik* iges egiten dogunean...

Ertze

XV

EKIN, 1935eko irailaren 28an (168. zenbakia)

Gizartearen geisoak III (Gosea)

Gizartean gosea dago. Neure begiz ikusi dot. Zeuk be, irakurle, behin baino sarriago ikusi dozu. Gose horrek gorputza eta arimea ditu. Kanean zehar ibili dabil. Negar dagi. Eskua luzatu daroa. Hagin zorrotzak erakutsi... Bizidun gosea da.

Euliak bailiran, kaleetan urreratuten jatzuzan ume gaixoak: arpegia lohi, ukalondoa urratu, ulea nahastau, koipeztu...

Zugatz azpian aharrasika etxunda dagoan mutil gazte lanbakoa...

Haundikien alabai lagun egiten deutsen neskazahartxoak...

Txatalez beteriko zakua lepo gain daroan atsotxoak...

Hauspoa esku artean eta didarra⁶⁰ eztarrian dauen agurea...

Azalez aberats eta barruz lander diran sendi ugari...

Horreik guztiok, eta beste asko, gose dira. Gosearen gorputza eta arimea.

Gaurko gizartean zenbat gizagaixok ete daukie euren bizitzarako behar-beharrekoa dana? Zenbat gizon eta emakumek, zahar eta gaztek, ete dabez euren Helburua lortuteko bide egokiak?

⁶⁰ *Didar*: deadar, txilio.

Txiro asko gara munduan; baina txiro izatea ez da lotsagarri. Txiroak ez dau ugaritasunik, estualdiak euki leikez; baina lanaren bidez berentzako lain⁶¹ da, behar dauezan gauzak beragan ditu. Txiroa gizona da.

Ezeukia⁶² ez, ostera, landerra dana ez. Eta ezeuki izatea lotsagarri da, norberentzat baino gehiago gizartearentzat. Gizarteak landerrari ez damotsalako biziteko erarik, gizatasuna ukatu egin deusalako, gizartea txarto eralduta dagoalako. Zuzentza eta maitazarrea⁶³ gizartetik kanpora jaurti dirala agertzen deusku landerkeriak.

Gosea alde batetik..., salokeria⁶⁴, ugaritasuna, jan tropea⁶⁵, dantzea... bestetik! Horra hor gizartearen geiso bikoitz bat.

Gaurko ogasun-eralguntzeak porrot garbia egin dau, eta aldatu egin behar da. Gizonaren otseintzarako izan daitezkan mundu honetako ondasunak; ez daiten inor be gosez hil; gorputza eta arimea dabezanak gizon izan daitezkan.

Aberatsak, ondasunen banakaritza osoa eskuen artean dabenak, gizarteko landerren erruki ete dira?

Txiroak gareanok, ogi, jantzi eta aterpearen jaube gareanok, ezer be ez daukienak gomutau ete doguz?

Gizartea aldatu egin behar da, sakonkiro aldatu be.

Erruki eske dago gizadia, zuzentza eta maitazarrea –kristinau-gogoia– oinarritzat dabezanen erruki eske...

Ertzetar Erramon

⁶¹ *Lain*: beste.

⁶² *Ezeuki*: eskeko.

⁶³ *Maitazarre*: maitasun, estimu.

⁶⁴ *Salokeria*: sabelkeria.

⁶⁵ *Trope*: astun.

XVI

EKIN, 1935eko urrilaren⁶⁶ 26an (172. zenbakia)

Gizartearen geisoak IV (Liberalkeria)

Politika eta ogasunetzazko liberalkeria ezereztu zalako us-tez dira hainbat.

Gizonak ez dau lehen besteko askatasunik. Bazkun eta al-kargoak sortu dira. Estadua gero eta indartsuago agiri da, gizo-nen arazo eta hartu-emonetzaz eskua gero eta gogorrago ezar-ten dau. Gizon guztiak maitasun ala nahitanahiezko lokarriagaz lotuta dagoz? Liberalkeriak iges egin dauela esan daiteke, ba.

Hori dinoenak, egia erdia baino ez dinoe. Gaur bakartadean gizonik ez dagola egia da. Bere idekoakin alkartuta dago; gizar-teak inoiz baino gehiago gizonen bizitzea arakatu eta zuzendu-ten dau. Baina liberalkeria ezereztu egin ete da? Ezetz deritxat. Ez dau arpegia baino aldatu, jantzia barriztau baino besterik ez.

Antxina gizonagan egoan liberalkeria hori, gizonaren ba-koizkeria eta norberakeria zan. Gaur gizonagandik gizartera jo-an da. Gizonen arteko burruka eta alkar ezinikusiak gizar-te-burruka bihurtu dira. Gizarte-taldeak bata-besteen aurrez aurre dakusguz, guztien onaren ardura bagarik taldearen nagusikeria bilatu nahirik. Edozetariko bazkunak be ugaritu dira. Eta baz-kunok, bakoitzari dagokion arazoa bete beharrean, besteen landetara sartu dira, bata-besteagaz burrukan dabilz.

Baina norberakeria hori urrunago be heldu da, gorago igon dau. Enderri eta estaduak be norberakeriaren jopu eta menpe-ko dira. Besteen eskubideak baztertu egin dabez, indargeak menperatu, gizadia gorrotz urratu...

Bakoizkeria⁶⁷, taldekeria, enderri-nagusikeria: liberalkeria-ren hiru arpegi eta jantzi dira.

⁶⁶ *Urril*: urri.

⁶⁷ *Bakoizkeria*: indibidualismo.

Liberalkeria oraindik bizi da, inoizko sendoen bizi be. Gizon, gizarte-talde eta enderri ugariak euren buruen ardurea baino ez dabe. Zilegizti eta erlijinoa ukatuaz, euren gurarien atzetik baino ez dabilz. Eta liberalkeria horixe da: egitada bakoitza, arazo bakoitza, azken helburu egitea. Ertian⁶⁸ azken helburu bat, ekonomi bizitzan beste bat, politikan be bai... Eta bitarteko diran helburu guzti horreik, Helburu Gurenaren zuzenbidetik aldendu badaitez, gizonenak egin eban. Arazorik gaina⁶⁹ azken helburu, gizonik gaina barreneko burruka zital. Gizonak bizitz argia galdu dau, porrot egin.

Erlijinoa, berau zer dan be ez dakienak, munduko arazoetatik urrunduta izan behar leukela esan deuskue, goragorako dala... Eta zeruetara jaso dabe. Erlijinoak berarekin zilegizti edo morala be eroan dau. Eta jazo behar zana jazo da.

Bakea zeru-goietan, eta lurrean heriotzea eta negarra.

Ertzetar Erramon

XVII

EKIN, 1935eko hazilaren 2an (173. zenbakia)

ARRANTZALEAK

Itsas anaidiak

Gure arrantzale eroapentsuak⁷⁰, hainbat eta hainbat auzi gogor ebatzi beharrean dira. Eurai laguntasuna emoteko garaia heldu dala dirudi. Eta, jakina, laguntasun horrek garbia izan behar dau, arrantzaleen ona baina besterik ez dau bilatu behar.

Gizarte-lana egiteko bazkun egokiak dabez gure arrantzaleak. Antxinatik itsas anaidi edo *kopradiak* dabez. Eta anaidi ho-

⁶⁸ *Erti*: arte.

⁶⁹ *Gaina*: beste, adina.

⁷⁰ *Eroapentsu*: egonarri.

reik aintzat hartu behar dira, indartu, osotu eta gaurko bizikereari dagokion mailan jarri. Arrantzaleen artean anaidiak itzal eta lotsa haundia dabe, itsasertzekoak ondo dakigunez. Euren alde ezer egin baino lehen, anaidi horrein antxina eta gaur eguneko bizikerea ezagutu behar da, arrantzaleen izakera berezia ikasi.

Ondo da arrantzaleen artean lan barriak egitea; eta behar-beharrekoa dala deritxat. Baina barrizte eta aldakuntza guztiak euren izate berezia aintzat hartu behar dabe. Eta nire eritziz, itsas anaidiak dira arrantzaleen ardurea hartu behar dabenak. Anaidien bidez egin behar da euren goratze lan osoa: anaidiak zuzendu behar dabe arrantza lehen ekonomi eta gizarte-bizitztea; anaidiak landu behar dabez euren adimen eta bihotzak eta hazi-ikaskuntza egokia emon; anaidi barruan ebatzi behar dira arrantzu-bizitzan sortu leitekezan eztabaida eta auziak... Eta anaidiai emon behar jakez lan oso hori egiteko beharreko eta egoki diran bide eta erreztasunak.

Lanbide hau jarraitu ezker, onura haundiak lortuko litzakezala-ta nago. Arrantzaleen auziak bazkun egokiaren ardura-pean egongo litzakez; euren bizitzeari batasun ederra emongo litzakio. Itsas anaidiak benetako korporazioak izango litzakez. Eta gaur nagusi dogun gizarte-arazoetako taldekeria arrantzaleen bizitza eta eralguntzan baztertu egingo geunke.

Ertzetar Erramon

XVIII

EKIN, 1935eko hazilaren 23an (176. zenbakia)

ARRANTZALEAK

Etxe-egunak

Lanik eza ez da lurralde soileko izurria; ez dira legorreko langileak bakarrik lan ezaren menpean dagozanak. Itsasaldean be, behin baino sarriago, lanik ez bildurgarri hori nagusi dala

ikusi daroagu. Itsasoaren orro eta ekaitzak dirala-ta arraina urritu dalako edo, geiso zitalak gorputza galdu deuselako..., gure arrantzale zintzoak itsasoratu bagarik euren buruak sarri aurkitzen dabez. Eta itsasoraterik ez dagoanean, arrainik ez, ogirik be ez. Gosea eta negarra baino besterik ez.

Itsasorate bako egunak *etxe-egunak* dozuz, irakurle. Badira borondatezko etxe-egunak. Jai haundiak diranean, baita gorputzari atsedena emon behar jakonean be, opor-egunok ondo jatorkez gure arrantzaleai; beharrekoak dabez, ganera.

Badira, baina, nahitanahiezko etxe-egunak be. Eta honeixek dozuz txarrak, irakurle; negu gogorrekoak badozuz ganera, hainbat txarrago. Ke bako etxea, etxe ituna dozu. Kanean zehar jantzia mehe eta oinak ortozik dabilzan ume koskorrak, ume negargarri dira. Tamalgarria da zeregin bako gizon gordinen erreskada luzea ikustea; burua makur, zotza eskuan, sakelean lamaiko⁷¹ bagarik, ibilaldi luzeak emonaz... Etxera dirua eroan behar da eta, emakumeak eurai ez jagokezan lan gogorretan dabilz. Adoretsuak benetan arrantzale-andrak. Karga-deskargan, itsasertzeetako zozpal bila, egurretan, etxe-garbitzean, errekan..., hor dabilza nondik edo handik lauко batzuk atara nahirik. Neke guztiak gozoki bat dabe, ahalegin guztiak helburu bat: sendia alikatu, umeak hazi, etxeari eutsi.

Nork ez dakus zeregin horreik baino egokiagorik bai dagoala arrantzale-emakumeentzat? Emakumearen joputzari amaia emon behar jako! Emakume ezkonduak, bere sendi-eginbeharra bete ondoren, ogibide egokia euki lei. Baina berari jagokozan arazoak izan behar dira, amatasuna eta emakumearen arima eta gorputz-izakera berezia aintzat hartu eta jagoten dabezanak.

Anaidien laguntasuna ondo jatorke arrantzaleai etxe-egunetan. Baina diru-laguntza urri eta txikia dabe hori. Laguntza horreri eutsiaz, beste bide batzuk zabaldu leitekez. Bide horreita-

⁷¹ *Lamaiko*: laumaraiko.

tik bat, lana emotea izango litzake: lana gizon sendoai, lana emakumeai; bakoitzari berari jagokana, arrantzaleen trebetasuna aintzat hartzen dauena. Arrantzaleen ogi-bide berezia arrantzua beste zerbaitegaz osotuko litzake. Itsasoraterik ez danean be, arrantzaleak zer jan eta zer egin izango leukie. Gaur negar-egun diran etxe-egunak, bene-benetako etxe-egun alai eta errezak izango litzakez. Zeintzuk ete dira, ba, arrantzaleai laguntza hori emon behar deutseen arazoak? Hurrengoan esan beharko.

Ertze

XIX

EKIN, 1936ko orrilaren 16an (201. zenbakia)

Luginaren jaia dala-ta

Aldi honetan jai ugariak egiten dira, mueta⁷² guztikoak egin be. Luginak be euren jaia eta eguna dabe. Horraitino, Bizkaian ez da atzokoa luginaren jai hori; aspaldion ospatuten da. Bederatzi urte honeitan, eten be egin bagarik Bizkaiko Luginen Alkartasunako bazkideak haundikiro ospatu dabe jai eder hori. Isidro Deunaren egunez lugin-alkargo edo sindikato bakoitzak jai egiten dau. Hurrengo igandez alkargo guztiak bat eginda, aurretik izentauriko herrian batuten dira, euren zaindaria goratu, lugin-alkartasuna sendotu, eta eurai joakezan gai eta auziak ikasteko asmoz. Egun hori da benetan lugin lauaren eguna.

Aurten Bizkaiko Luginen Alkartasunak Zamudion ospatuko dau bere urteroko jai haundia. Ez da makala izan be tokia! Euskal Herriko lugin-alkargorik sendo eta ederrenak inguru haretantxe dagoz: Begoña, Zamudio, Loiu, Lezama, Mungia..., izen erreskada ederra!

⁷² *Mueta*: modu, jenero.

Jaiaren egitaraua luginen gogoia betetako lakoa da: eleizkizun ederra, hitzaldi eta guzti; auresku, ezpata-dantza eta jolasak; abelgorrien erakusketa eta sariketea; bazkaria, eta luginen aldezko hitzaldiak.

Bizkaiko alkargoen ordelariak⁷³ hantxe izango dira, baita inguruetakoko lugin mordo ederrak be.

Txorierrri adoretzu eta eraginori! Gaur zeure bihotzean gaukazuz. Luginak gara. Bizkaia zaharraren semeak. Bizkaia berbera. Bere odol eta haragia. Euskaldunak gara. Euskal gogoak garabilz. Katolikoak gara. Kristinau-aginduak bete gura doguz geure bizitzan eta gizarte-arazoetan.

Geure Bizkaia ostu egin deuskue. Geure etxean baztertu egin gaitue. Luginak zeresan haundirik ez dogu Bizkaiaren gorabeheretan. Gure herri eta baserriak epel, makal dabilz. Ez dira gomutea baino! Antxinako eleizate eta uritxo horreik!...

Bizkaia berbiztu gura dogu. Geure herri eta baserriak goratu. Jakintza-lana auzotegi txikienean be egin. Ogasun-bizitzea atondu. Geure indarrak geure herriaren onerako erabili. Bizitza osoa bikaindu.

Eragozpen gogorak aurkituko doguz geure lan horretan. Ez gaitzezan, baina, bildur izan. Batu gaitzezan gogo oneko gizon guztiok. Bizkaia zaharraren semeak gareanok!

Ertzetar Erramon
Licencié en Sciences Politiques et Sociales
Bilbao, 1936-V-14

⁷³ *Ordeleri*: ordezkari.